

ALEGIAKO UDAL BATZARRAREN OSOKO BILKURA

2016-11-28

2016ko azaroaren 28an egin zen Udal Batzarraren Osoko Bilkurak emandakoaren laburpena duzue jarraian. Bost erabaki eta bi mozio izan zituzten aztergai.

ERABAKIAK

1-2016-10-26ko Osoko Bilkurako aktak onartzea.

Ontzat ematen dira.

2-Tolosaldeko taxi jardunbide bereziko zonaldea. 2017 ekitaldiko tarifak.

EH BILDUko zinegotzien aldeko botoekin onartzen da. EAJko zinegotziek ez dute bozketan parte hartzen (abstentzioa).

3-Udal Planeamendu orokorreko ordeko arauen “I-12 Becker” eremuari buruzko aldaketa txikia. Testu Bateratua onartzea.

Aho batez onartzen da.

4-Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren estatutuen aldaketa.

Aho batez onartzen da.

5-2016 ekitaldiko diru-laguntzak banatzeko proposamena. A) Kultura. B) Euskal Herri mailako egitasmoak. C) Gizartea.

EH BILDUko zinegotzien aldeko botoekin onartzen da. EAJko zinegotziek ez dute bozketan parte hartzen (abstentzioa).

MOZIOAK

1-EH BILDU taldeak aurkeztutako mozioa. Azaroaren 25a. Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna.

Alkateak aurkeztutako mozioa EH BILDUKo bost zinegotzien aldeko botoekin onartzen da. EAJko zinegotziek ez dute bozketan parte hartzen (abstentzioa). EAJko Kerman Orbegozo zinegotziak “terminologia gogorregia” dela argudiatzen du aldeko botoa ez emateko. Alkateak orduan, EUDELEk bidalitako testua onartzea proposatzen du. Aho batez onartzen da.

2-EH BILDU taldeak aurkezten duen mozioa. Zer egin dezaket nik euskararen alde? Euskararen Nazioarteko Eguna 2016.

Aho batez onartzen da.